

Muxigoibarko lexiko figuratiboaz

Ricardo Badiola

Mendebaldeko esparru jakin baten barruan/Muxigoibarre(a)n
erabilitako lexiko figuratiboaz ohar batzuk

edo eta

Muxigoibarko lexiko figuratiboaz

Mendebaldeko kokagune jakin baten inguruan, berbeta arloan, emo-
ten dan hizkuntzaren bigarren edo eta, zentzu arruntetik aparte, irudiz-
ko/figuratibo arloan, berbak daukan esangura/esanahiaz saiotxoak.

SARRERA MODURA

Azken urteotan gure Herriko/Euskal Herriko auzune, ibar, herri,
uri eta antzeetako lexiko dala eta, berba-zerrenda, liburuxka, txosten
eta artikulua ugari argitaraturik ikusi ditugu lexikoaren inguruko barri

eskaini gurarik. Nik orain aurkeztu eta mamitu gura dodan txosten txiki eta labur honetan ez dot gura berba zerrendarik emotea. Orduan zer esango dodan lexikoaren inguruan?

Aspaldi nabil kezkatu gure berbeta/hizkerak daukazan bigarren zentzu edo zentzu figuratiboak jaso eta beronen inguruko hausnarke-ta egiteko gogoaz. Hemen ez naz ibiliko aitatzen ditudan berbek daukien ohiko esangura zein dan, zelako fonetika gora-beherak dituen, zergatik eta zelan heldu diran guregana figuratibook. Hau guztiau kontuan izanda, nik hemen Muxigoibarren, Muxigoibarko herritxoan jasotako berba eta adibide batzuk azaltzera ausartzen naz zuen entzute-borondatearen guraria agortzeko asmo barik.

Gure aurrekoak eta gaur eguneko ikerlariak dinoienez dialektologiaren eremuan baten baino gehiagotan lexikoari balio gitxi, edo eta ia ezer ez, emon izan jako. Eta hona joz gero, Mendebaldeko auzune askotan berba berberak esangura ugari eta desberdinak ditu. Alde batetik, lexikoaren gora-beherak askoz be erabiliago eta ugariagoak izaten diralako; eta, bestetik, berba zenbat eta usain zaharrekoa izan orduan be ez deuskue argibide larregirik emoten. Hau guztiau kontuan harturik lexiko mailako desberdintasun-antzekotasunak eta berbeta figuratiboak ez dira zertan izan aspaldi batekoak...

Hemen begi zorrotzez ez bada be linguistika eremuko estrukturalismo teoriaren ikuspuntua eta konparagarritasuna jokerak alkar baten jakuz. Holan ba semantika arloak parekatzen dituen bideak aztertzen/arakatzen ahaleginduko gara eta urruntzen edo eta desbideratzen dituen jokerak albo batera lagako ditugu.

Bestalde esan behar dogu, alor edo eremu semantikoak antolaten/organizatzen ez jaku bat be erraz egiten. Askotan norberak be ez daki non abiatzen dan baten esangura eta non amaitu edo eta beste bat non hasten dan. Gainera arlo semantikoa osotu ahal izateko, behar-beharrezkoa dogu beronen mugak makakatzea, eta baita

mugatzaile/mugagailuak zeintzuk diran eta norainoko eragina daukien.

Hemen geografia eremuko ideia bat be aitatu beharrean aurkitzen gara, hau da, lexikoaren egitura geolinguistikaren erreflexu edo islada dogu eta honexegatik kontuan hartzekoa. Nik hemen aitutzen ditudan berbek banaketa geografikoa nondik nora doan ez dabe larregi argituko, baina bai jasotako herri edo auzunetik goragoko berba dala adierazten. Jarraian azaltzen ditudan berba, adibideok ez dira toki zehatz edo eta mugatu-mugatukoak, supralokalak dira eta inoiz ibar mailakoak.

Eta jarraikoa danok jakin arren esan beharrekoa dala uste dogu, alegia, gure herrietako berbeta modua, esamoldeak eta batez be lexiko figuratiboa bizimoduaren aldaketaz eta berbagileak desagertzen diran neurri edo heinean, ezerezean gelditzeko arriskuan aurkitzen gara. Bestalde lexiko figuratiboa, aberatsa izan da be, inguruko herrietako bizimodu, berbeta modu eta, batez be, irrati-telebista-prentsaren eraginez ia-ia desagertzeaz dogu. Txostentxo honetan, bestalde, albo batera izten ditugu deklinabidea, aditz formak (hika eta zukakoak), joskera, azentuazioa, entonazioa, fonetika... eta beste hainbat diziplina. Eta hemen, uste dogu, gogor salatzeko gaia dala, jarraiko hau, alegia, nik neuk aztertuturiko berbeta mota edo marka heriotzako bidean dogula momentu honeitan... eta laprastada haundiagoa sortzeko gaztelaniatikako maileguen kopurua gero eta nabarmengoa dogu. Eta honengatik guztionengatik lexikoa dogu eragin artezena jasaten edo sufritzen dauan diziplina. Honen froga modura hemen ditugu batzuk: “*kotxie, mogolloie, bezinoa, barroa, limakoa, ardillie..*” Eta hau guztia lexiko arruntekoa... eta ‘lexiko figuratiboa’ dala eta, zer esanik ez ...

Hemen ezin dogu ahaztu gure berbetak daukan arazoa, beste inguruko hizkuntzetan emoten ez dana zera da, alegia, berba bat

mugatzailearekin edo eta mugatzaile barik ezartea dala. Gure kasu honetan, berba mugatzaileagaz sartu dogu. Holan hasten dira esparru dialektalak eta azpieuskalkiak banatzen eta bereizten, hau da, hizkuntza eremuen azpisail edo azpieuskalkiak osotzen deuskue berbeta baten arau edo norma moltzoa. Eta gehiago esatera ausartzen naiaztzue, alegia, eremu dialektalen edo euskalkien arteko alkarren arteko ulertzea, kasu askotan, ezaugarriotan daukala oinarria.

Eta amaitzeko, guk geuk buruturiko transkribaketa dala eta, zera azaldu behar dogu, hemen ez dogula alfabeto fonetikoa erabili gura izan, behar bada, gauza batzuren argitasuna gerizpetu ahal zalako edo eta norberak uste baino lehenago gaua egin dagike(e)lako. Beraz, alfabeto arruntagaz ahalegindu gara berezitasun edo ñabardura gehienak azaltzen. Kasu batzutan “ y “ zeinua darabilgu, igurzkari edo edo frikari sabaikoa ordezkatu ahal izateko, eta “ j “ aldaera/aldaki/bariantea belarerako. Eta honen guztionetatik zera nabarmendu behar dogu, “ h “ fonema baztertu dogula, guk ikertzen dogun inguruetan ordezkapen fonetikorik ez daukalako eta, bestalde, bokal bi bardinak diranean, geminaziorik emoten ez danean, bokal bikotxa baztertu eta ekidin egin dogu.

Hona hemen lexiko figuratibo edo irudikazko arloagaz zerikusia daukien eredu, adibide eta azalpen batzuk: jarraiko adibideok ez ditut gaika ezarri. Behar bada, beste baterako beharra izan daiteke, gaika, ordenan... eta abar jartzeko. Oraingoz begoz dagozen-dagozenean.

Ohar fonetiko batzuk aitatuko ditut hemen jarraiko adibideetan agertzen dira eta:

1. Y : idazten dot jarraiko kasuotan: nayako, kriyedue/kriyedie, anaiyie, ogiye, begiye, abisaiye, argizaiye...

- 2.- TT : aitte, aittu, eitten, Beitti, oittu, Kaittana...
3.- TX : etxe, atxa, gatxa, etxakiyat...
4.- DD : eiñddeu, eiñddogu. Maddi, Maddalen...
5.- N/Ñ̃ : oñez, egiñez, oiñ/orain, eiñ/egin, miñ, giñe...

6.	S	X	Z
	=====	=====	=====
	TS	TX	TZ

Saldie, saltsie, zaldiye, txoriye, etxie, otsoa, atxurre, sardatxurre, zuriye, menditzarra, beitzarra...

7. LL : ollo, ollotokiye, ollarra, medelline, baillarinak, aillorbie, ollolokie...
8. J : jauna, joan, jabie, joan-etorriye...

Eta orain jarraian lexiko mailan berba arruntek irudi edo figuratibo eremuan izan daikien esangura batzuk azaltzera noatzue.

ADIBIDE ETA OHAR BATZUK:

1. Abarka-ezten(a)/*abarkestena*: iz.- Lok. Etnotestua eta irud. edo figur.: abarka- ziri edo abarka, abarketa edo antzekoei zuloetan kordela sartzeko erabilten den tresna. Batzutan egurrezkoa edo eta, gehienetan, altzairuzkoa. Baina irudi edo figuratibo mailan 'gizaseme astuna, desegokia...'.
Berba hau sorgin eta pertsonaia bereziek erabilten ebela dinogure elizateetako agure-atsoek... ; batez be, argi-indarra eta eskopetak etorri aurretik. Le(hen)go sasoieta, irudimenak bizi-bizirik zirauen familietan eta baita gizarte mailan be: Ipuin asko

edo eta antzekoak beheko suaren ondoan edo eta ganaduak landan jabetzen/jagoten ebiltzala kontatzen ei ebezan. Ipuin eta kontakizun askotako pertsonaiek deabru edo eta antzekoen itxurak hartzen ei ebezan: “ Enekok, dirudienez, *abarkestena* dala emoten dau, beti dabil ziri eta ziri eta...”.

2. Aldra/*aldrie*: iz. lagun batzuk katean behar/bierra egiten daberen giza-moltzoa/behargin taldea: “ gure auzunetako garijotie *aldra-ka* eitten yoagu eta ez bakarka...”.
3. Amatatu/amateu(a): 1.- izlag. Lan, betebeharrak eta antzeko zereginetan motela dena, argi gitxikoa, gizaseme hila: “Jose Beittikoari askotan esan be(h)ar yako zeozer apur bat ondo egiteko, benetan motel-motela dogu eta”; 2.- ad. zerbait laga, bertan behera itzi, kasurik egin ez: “Gure Peruri fedea amateu/moteldu egin yakola esan deusku auzuneko parrokoak, aspaldiyon mezatarara be ez da joaten eta”.
4. Arrakala: iz.- andrazko edo animalia emeek seksu hartuemenerako eta txisa egiteko daukien gorputz atala.
5. Aurrelari:iz. 1.- pertsona zuhurra, abila, argia... azalpenak eta beste arin harrapatzen dituenak: “Gure Jaione neska aurrelaria dogu, ez dau bistarik be kentzen eta (h)olan gauzak guztien jabe laster baten e(g)ituen yaku”; 2.- Zientziaren alorrean aurreratua dena, teknika arloa ondo landua daukana: “Eneko Larrinaga benetan aurrelaria dogu matematika eta natur zientzietan”.
6. Basabehia: iz.-heziketa gitxiko gizasemea, lotsa bakoa dana, inoren aurrean beti dana dakiena: “berbetan luze/berbekaz urrun, dana erreza dalakotan, gero... ekintzetan labur”.
7. Enplasto/*enplastue*: iz.- izord.- izlag. Lagun edo pertsona baketan inor izten ez dakiena, gauza guztietan eskua sartu gura duena: “ Euli goseduna baño *enplastuagoa* as, diñotso amak

bere alaba txikiyeri”; “ Mikel aldeik/alde egik (h)emendik enplastu (h)utse (h)az eta...”; “Miren (h)i marimutil eta *enplastu* biziye (h)az...!

8. Erromeria/erromeriye: no(r) no(r)k olgeta moduan zeredozer egin dauanean eta ingurukoa(e)k ondo hartzen dabenean esaten dogu Bizkargi inguruan: “hau dok hau erromeriye, danok barrezka gabizok eta...”.
9. *Ganguxe/ganguxtu* : iz. Izond. eta ad.- gizaseme bat adimen ari-nekoa, kaskarin xamarra eta bestalde geldirik egoten ez dakiena: “Larrondoko Erroberto zietz *ganguxtuta* ikusi dauala esan deusku gure aittittek...”; beraz, mutil ganguxe dala esan gura dau: “ *Ganguxe, ganguxkeria, ganguxtu...*”
10. Katanar/katanarrez(s) : adlag. Ume bat, oinez ikasten hasten danean lehenengo *katanarrez* ibiltan da, hau da lau hankagaz (aurrean eskuetak eta atzetik hanka biekaz): “ Ainhoa, zuen loba txikiye, bi urterarte *katanarrez* zan baserriko askaurre, eskats (eskaratz) eta sasteiyen”.
11. Kedar/*kedarrie*: iz.- Gizaseme batek eguzki ugari hartu (hondartzan edo edurtzan...) edo eta laser izpiak hartuz gero hartzen dauan azaleko kolore baltz edo iluna: “Mirenen aurpegiyek, neguan izanagatik, *kedarrie* dirudi... (h)hamabost egun edurretan/edurtzan/eskietan ibilli da eta”.
12. Korronte/*korriente/korrente*: izlag./Izord.gizaseme atsegina, hartu emonetan fina eta hurrekoa egiten dana: “Urrutxuko Bittor gizon *korriente* dala diño gure aittittek”.
13. *Maletak*: gizonezkoaren parteak edo eta txisa egin eta hartuemon sexualak euki ahal izatekoak: “Iñaki, i zertan abill esaten au eiñgoyoat, bestela apurtuko yoat... (h)ik (h)eure *maleta-kaz* be ezin badok...!”.

14. Mantar(ra) : iz.- balio gitxi daukan zeredozer; edonork izan daikeena edo eta errez ersi daitekeena: “Eberdiyen emon deuskuen ardaua baño edari mantarragorik ez dogu aspalditxoon edan...; Jone, benetan *mantarra* izan don gaurkoa, e...”.
15. Mantso/mantsotu : izond.- ad.- 1.- pertsona bat urduri jartean eta lasaigarriak hartuz gero, mantsotu egiten da, mantso gelditzen da; 2.- arazo latz edo gogorra sortzen denean eta, gero, konponbidea aurkitzean, orduan *mantso* gelditzen da: “Urlia, sendia eta berendia urduri ikusi ditugu, baina gero urteera aurkitzean *mantsotu* egin dirala, dirudi”.
16. Mortxa/*mortxie*. iz. eta adond. Jendetza edo eta animalia edo txori etabar kopuru handia emoten danean: manifestazioan, okasiñoan, paseatzean...: “Atzo arrastiko okasiñoan jendetza/*mortxa* ederra egoan auzuneko elizpian”; “goizion Gabonetarako karakolak/barraskilloak batzen ibilli yaku Pello eta, toki batzutan, *mortxaka* aurkitu dittuela esan deusku”; beraz, *mortxa* bat ikusi...; eta *mortxaka/mortxan* egon, bizi, etorri, ibili...
17. Mozal/*mosala* : iz. pertsona berbaldunari hitz gitxiago edo jan gitxiago egiteko irudimenezko sarea ezarri. Berba hau gaztelaniazko ‘bozal’ berbatik jatorku: “(H)i, Eneko, (h)iri *mosala* jarri beharo yak, bestela igaz ez yeukagu karrerarik eitterik jate moduan/jan munduen”.
18. Mutxikin/*mutxikiñe*. iz.- pertsona bat ziztrina, zikoitza danean (diru zein beste gauzak inori emon edo eta banatzeko orduan...) *mutxinkine* dala / *mutxikintzat* joten dogu: “Okoloko Martin *mutxikiñ* (h)utse dala diñoe gure aittitte-amumak, ze berak ez daki bedarra ebaten be ta”.
19. Negargarria/*negargariye*. izond. 1.- pertsona batek ekintza desegoki edo iguingarria burutzen dauanean: “Patxik bere

seme Igor jo yok... hau ekintza *negargarriye* dokela XXI. gizaldi edo mendien”; 2.- Ezbehar baten ondorioz, nonor hiltan jakunean: “Bart kamiñoan ikusitako istripua, benetan, *negar-garriye* (izugarri edo kristolakoa eta negar egitteko modukoa...) izan zan: lagun bi hil eta lau zauritu”.

20. Negartia / negartiye: izlag. 1.- diru-eske, hileta jotan... dabile naz esaten da: “gure auzoko Miren beti dabil *negartiye*ren antzera, beti illeta jotan... dirua dala eta... eta ez dala...”; 2.- Gizaseme bat bere burua baino ikusten ez dauana, norberekoa dana: “Txakilleko Pedro *negarti* (h)utse dogu, beti yabilku dirurik ez dauala irabazten eta abarreko kontuekaz”.
21. Odol hustu/odolustu: ad.- Lagun edo gizaseme batek ezbehar/istripu edo antzekoren bat izanda gero, ondorioz, odol isuria/galtzea daukanean, hau da, zauri haundia egitea, hilzorian aurkitzea...: “Le(hen)go bariku iluntzien Goisko Eburnek ezbierra euki eban eta iye-iy *odolustu* egin yaken lagun eta medikueri”.
22. Orpoa: iz. 1.-mahats edo antzeko landareetatik zeredozer atara daitekeenean erabilia dogu: “mahatsaren orpotik dator mama gozoa, mama gozoa... edango neukeela beterik basoa... klin... beterik basoa...” (Herrian kanta ezaguna, antzinako kanta); 2.- Gizaseme batek ekoiztu edo produzitu daikene giza-atal bat: “Peruk *orpotik* sortu dau txostenak idazteko tankera”.
23. Sentaka/*sentakie* : iz. Gizaseme edo pertsona bat, garbitasun ezaz edo higiene barik –garbitu barik...– aurpegi, belarri, buru, etab. Ur-xaboiak igurtzi barik jendaurrean agertzea: “Ainhoa, (h)ik daukan *sentakie* aurpegi, bekoki eta belarri ondoetan... bayirudin aspaldiyon urik eta jaboirik ez donala ikusi be egin...(h)ik *sentakie* ertzaz daukan...!”.

24. Sostropo: gizaseme txiki, baxu, indar gitxi eta, inoiz despektibo moduan, gauzeztana dana erabilia... askotan adarra jo edo eta beste pertsona batzuren aurrean txarto jarteko erabilia: “Hi, Peru, kendu hadi *sostropo* huts(a)/e haz/as da”.
25. Sustar/*susterra*: iz.- 1.- gizaseme edo lagun batek izaera, portera edo holako zeozer arazo edo larrialdi baten aurrean emoten dauan/duen erantzuna: “ (H)i Ander, (h)ik daukak *susterra...*, autoa parking-etik ataratzean alboko furgoneta jo dok eta ez deutsak ‘nota’-rik be itzi...” 2.- Etxe edo eraikin baten oinarria edo eta kokatuta dagoen lekua: “ Gaztelugatxeko elizaren *susterrak* arbel gainean finkatuak dittugu”.
26. Sustentu (a/e): iz.- 1.- gizaseme edo pertsona batek bihera egiterakoan eta hilabetearen amaieran ‘dirua’ kobratzean edo eta norberaren etxera eroaten danari esaten deutsogu: “Etxekoneko Tomasek *sustentu* ederra ei dau piñu lantzen ibiltzen da eta”; 2.- Baten batek beste pertsona bat beharrian gorrian ikusterakoan laguntza eskeintzea edo eta eskupekoa emoteari deitzen deutsogu: “ Enekok auzuneko elizpe ertzean egoten dan eskekoari *sustentue* eskeiñi deutso...”.
27. Tatarrez: adlag. eta lokuzio etnolinguistikoa: lagun batek bere gurariaren kontra zeredozer egin behar dauanean, behartuta dagoenean; norberaren borondatearen kontra egin biher danean...: “ Aittek diñotso seme txikiyeri: seme, estudiyoak ondo atara behar dozak, *tatarrez* baño ez padira be...”.
28. Ugaria/*ugeriye*: iz. 1.- esku zabala dana, daukana emoten dakiena...; 2.- aurreztuz-aurreztuz esku artean zeredozer beti-beti gelditzen yakonaz be esaten da.
29. Zantarkeria: iz.- etika eta gizalege eta moral esparruan nasaia eta kezkgitxi izatea; gizasemeak edozelan erabilteari be esaten

yako: sino. txarrikeriye, nasaikeriye, zikinkeriye... zentzu peioratiboan.

30. Zoztor: izlag. Gehienbat pertsona bati edo eta animalia zein landare edo gauza bati ezarten jakon kalifikatiboa balio/balorre gitxi emoten jakolako/zaiolako edo eta gauzetana edo baztergarria dala adierazteko erabilia: “Mikel, kendik/kendu egik (h)ori lore *zoztorori* alperrik galduta yagok eta”.

Beraz, goian emon dogun lagin hau hainbat eta hainbat luzatu geinke, baina gure ustez nahikoa da frogatzeko gure berbetak daukan aberastasuna irudi-munduan edo esangura figuratiboetan edo eta berba batek bigarren edo hirugarren esangura izatean.